

- **Zer berri:** 8 emakumek eskatu dute asistentzia psikologikoa
- **Kultura:** Kontrargiren XXII Argazki Rallya azaroaren 20an

soraluzeko  
hamabostekaria **231.** alea  
2010eko azaroaren 12an

# pil-pilean



**EZOZI ARIZAGA**  
“Basarriko bizimodua  
gustatzen jata”



**Azken etxebizitzak**

# Soraluzen



**22 ETXEBIZITZA ETA GARAJE**

Soraberri Promozioak Informazioa: **689 420 761**

Eraikitzailea: Egaralur [www.egaralur.net](http://www.egaralur.net)



## Danon artian lortuko dogu

*etara deigun ekarrazana leihora...*

Jarri  
banderola  
zure etxeko  
lehoian

**EUSKAL PRESO  
ETA IHESLARIAK**



**EUSKAL HERRIRA**

*ta leihotik kalera*

## Banderolak eskuratzeko mahaixak jarriko dira

Azaroak 13 Larunbata **GAZTAÑERRE AZOKAN**

Azaroak 19 Ostirala 19:00tatik 20:30tara Udaletxe azpitan


Heriotz zigorrik ez! Bizi osorako zigorrik ez!

**MABE**  
ILEAPAINDEGIA



**ESTETIKA  
SOLARIUM**

Errebal kalea 1. behea  
Tel.: 943 75 14 89  
20590 SORALUZE



*Harategia*

Enkarguz  
eskatutako janaria ere  
prestatzen dugu

**HARATEGIA**

Kalebarran 3. Soraluze

Tel. 943 75 12 49



**Lakuesta**  
**Optika**

Ikusmen arazozen frogak  
eta argibideak

Parafarmaziako produktuak

Santa Ana, 22 C- behea  
20590 Soraluze  
T. 943 75 30 59





GORKA PRIETO



EGUZKIÑE ALDAZABAL

## MARTINIZAZIOA

Zer berri Eguz!  
Zaurkoan nire ikuspuntu subjektibo, baina halaber apolitikotik, alderdi politikoei nola gustatzen zaien herritar ororengana heltzen diren hedabideen erabilera alderdikoia egiteari buruz arituko natzaizu.

Aspaldiko ohituratzat daukat etxetik lanera eta lanetik etxerako bidean autoan Euskadi Irratia entzuten joatea. Benetan triste jartzen nau azkenaldian irrati publikoan euskararekiko izan den folklorizazioak. Euskararen maila bera pobretu eta programazioaren maila kritikoa guztiz deuseztatu dute. Politikoez azken hitza duten hedabideetan hau gertatzea ohikoa izaten omen da. Hori esanik, bertoko, etxeko hedabidean, Pil-pileanen, beste neurri batean, baina antzekorik gertatzea litzateke tristeena. Nahiz eta guztiz zilegi izan, irakurle-goaren gehiengoarentzat apurtxo bat astuna izaten hasi den fenomeno gertatzen ari da aspalditxoan; udal talde politiko jakin batek herritarrei zabalik den gutunen atala kutsu elektoraldun gutunez josten baitu azkenaldian, gutun bakarrarekin nahikoa ez, eta zenbaitetan bi ere plazaratzera helduz ale bakarrean, bozka kutxetan bere garaian galdu zutena horrela berreskuratu nahian edo.

Martini zuriarekin gertatzen dena gogoratzea ez letorke gaizki kasuan. Bat edo bi gustura hartzen dira, baina gehiegitxo hartzeak Martini azkenaldian nazkatzea dakar.

Ez dezagun orain dela 15 urte herri pluraletik herri pluralarentzat sortu zen Soraluzeko aldizkaria, garai hartan pluraltasun hori hain zorrotz gainbegiratzen zigutenengandik "martini'zatu"...

Goguan hartzeko

Bi urte hitz egiten ikasteko; bizitza osoa isilik egoten ikasteko.  
Gotzon Garate, atsotitzak

### Triste jartzen nau irrati euskararen folklorizazioak

Gorka Prieto

### Gure Pil-pileanen ere maitasun eskutitz gutxi aspaldian...

Eguzkiñe Aldazabal

Gorka,  
Ez didazu ez lan makala jarri... politika tartean sartzen denean, kontu! Mila iritzi desberdin ateratzen dira harri azpitik, txindurrien modura...

Nik ez dakit edade kontua izango den ala ez, baina aspaldian *martiniak* sekulako alfergura ematen dit: "martinizatzen" uzten den jendeak, bizitza besteak "martinizatzen" pasatzen duen jendeak... *bixamuneko* buruko mina!

Eta ze polita den, goizean goiz jaiki eta kafe on bat hartzea, arnasa ganoraz hartzea, lasai. Eguerdiko marianito umelen aldean... *marabillosua!*

Ni, harri horien gainetik saltoka nabilela, harritzen nau, jendeak nola hartzen dituen harriak, nola besteei bota, nola ezkututzen dituen komeni denean, iritziak dantzan, korrika. Eta beti "honek hau geizki egin du", "besteak bere buruari begiratzen dio bakarrik", "harekez daki entzuten"... harritzen nau, *zemaalaxe*

daukagun, hain gaizki egiten ditu besteak gauzak beti? eta guk ondo? gainera hobetze kritikak baino, besterik gabe, kritika "ez" izan ohi da, "besteei ez" potoloa.

Askotan gure txikiei esaten diegu "*isilik egon zaitte*", eta guk ba ote dakigu isilik egoten...

Juliak bere azken filmean egin duen modura, guk ere "jan, errezatu, maitatu"-ko bagenu, guk ere irabaziko genuke Oskarren bat, gure bizitzako pelikulan.

Ez daukagu gainera Italiara, Indiarra eta Balira joan beharrik, nahikoa genuke

Karakate puntara tortila patata bokadilo bat egin eta konpainia onean igotzearekin.

EITBn begibistakoa da pasatzen ari dena, eta gure Pil-pileanen ere maitasun eskutitz gutxi aspaldian... *martinizatuak ta patxarán...*, har dezagun kontra-kafea, *kon aroma de muuutxoamor*.

Gorka, *mutxa Fortaleza!*





## GUTUNAK

**Nun dago herriko kultur etxea?**

Urriaren 20an izandako Kultura Batzordean, herriko kultur eragileek aurkezturiko eskararak aztertu ziren. Beraien iharduerak burutzeko, udalari, zenbait lokalen egokitzapena eskatzen diote. Eskaera ez da berria, jakinekua baita herrian dagoen lokal gabezia. Gobernuaren osieran, kultur arloa eramaten duena, ezker abertzalea da. Zeintzuk eta urteak joan, urteak etorri kultur etxearen proiektua galdatu izan duten berdinak. Galdatu bakarrik ez, baizik eta aurreko legealdian gure taldeak aurkezturiko aurrekontuei aurka bozkatzeko erabili izan duten aitzakia izan da. Aitzakia esaten dugu, zeren eta orain gobernuan

dauden honetan, orain arte ez dute ezer ere aipatu gai honi buruz. Eskuaratean darabilten ideia, herriko zenbait lokal egokitzea da. Beraien hitzak erabiliz hau ez al da “partxeo” bat?

Gure taldeak ondorengo galdera luzatzen du: Nun dago herriko kultur etxea? Alkate jauna; hauteskunde kanpainen kultur etxearen inguruan emandako hitza bete behar al duzu? Legealdia bukatzeaz gauden honetan, beste zenbait gaiekin gertatu den bezala, pentsatzen dugu, kultur etxearen proiektua ere ez dela gauzatuko.

**Soraluzeko EAJ/PNV Udal Taldea**

**Zorionak, Goiena!**

1988an ikusi zuen argia estreinakoz Arrasate Presek. Proiektu berritzailea izan zen; herriko berri euskaraz emango zuen aldizkaria asmatu zuten AEDko -Arrasate Euskaldun Dezagun- euskaltzaleek. Hala sortu ziren Eta... Kitto, BARREN, Pil-pilean, Drogeteniturri edo Berriketan aldizkariak Debabarrenean. 2000. urtean, Debagoienean Goiena proiektua sortu zuten. Bailarako multimedia proiektua zen, eta aldizkariarekin batera, telebista eta Internet ere jarri zituzten martxan.

10 urte pasa dira ordutik, eta haien bailarako proiektu komunikatibo garrantzitsuena da Goiena gaur egun. Azaroaren 11n ospatu dute 10. urteurrena, eta zorionak eman nahi dizkiegu gure lagunei bailararen parte honetatik.

Eta gurean, zer? Gurean ere emankorra izan da herri aldizkariaren ibilbidea, baina ezin gara atzera begira geratu. Komunikabideen arloan aldaketa handiak gertatu dira, eta handiagoak gertatuko dira. Debabarrenean hasita gaude bailara mailako komunikaziora iristeko lehen pausoak ematen. Erronka argia da: Debabarrenean euskarazko hedabideen indarra eta eraginkortasuna biderkatzea.

**Koldo Mitxelena (Eta ...Kitto-Eibar)**  
**Egoitz Unamuno (Pil-pilean-Soraluze)**  
**Dorleta Vidal (Drogeteniturri-Ermua)**  
**Koldo Aperribai (Berriketan-Deba)**  
**Imanol Larrañaga (BARREN-Elgoibar)**

**Tallarra bizirik**

Azkenian Tallarra gaztetxian geratu gara, erresistitzen, gune libreak eta hau maite ditudugulako. Zortzi urte hauetan gudan sinisten ikasi dogulako eta beste gauza askotan ez. Kalia, ekintza eta komunikazio espazio moduan ulertzen dogu eta Tallarra barruko aldarrikapenak bertara etartzeko biharra sentitzen dogu. Guretzako, okupazioa eta autogestioa bi hitz baino gehiago dira. Gure inguruan desajoi ugari egon da eta apurtu nahi daben mugimendu honi elkartasuna adierazi nahi detsagu, Tallarra horren parte be badalako. Burruka sozialak aldarrikatu nahi ditudugu mehatxatuta dagozelako. Kapitalismuan itsaso zikin honetan astiro-astiro autogestioaz eta asanbladaz baliatu

turik sortutako irla txiki honek bihar ditudugu pertsona moduan aberasteko eta ez dogu udalan biharrik izan horretarako. Honek Tallarra gaztetxia, ezer esan barik bertan behera botatzeko asmua euki zeban. Saiakera “trapero” honi asanbladak aurre egin zetsan eta lokal “kutre” batzuk eskaini zoskuezen. Udaleko ordezkariak: duintasunik ez dukagula uste dozu?

Guzti honengaittik Tallarrari bukaera hau emotia nahi detsagu eta asetuta geratzen gara, badakigulako urte honetan danetan egindako lanak bere hazixak bota dituduala eta honek denporiakin ernaldu egingo dirala...

**Eibarko Tallarra Gaztetxea**

Pil-pilean Kultura Elkarteak ez du bere gain hartzen aldizkari esanen eta iritzien erantzunkizunik.

# Pil-pilean

**Argitaratzailea:** Pil-pilean Kultura Elkarte. Errabal kalea 15- 1., PK 27 - 20590 Soraluze, Gipuzkoa **Telefonoa:** 943 75 13 04 **e-maila:** aldizkaria@pilpilean.com **Erredakzioa:** Leire Iturbe eta Miren Narbaiza **Erredakzio batzordea:** A. Unamuno, E. Unamuno eta A. Madrid, L. Iturbe eta M. Narbaiza **Publizitatea:** Ane Larreategi **Logotipoa:** Pablo Galarraga eta Silvio Vaz **Disenua:** Silvio Vaz **Maketazioa:** Iñigo Uribebarria **Inprimategia:** Gertu Koop. **Banaketa:** Pil-pilean Ekoizpena, 2.000 ale **I.Z.K.a:** G20696563 **Lege-gordailua:** SS-537-2.000

Aldizkari honek erakunde hauen dirulaguntza jasotzen du euskara bultzatzeko.



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

**KULTURA SAILA**  
Hizkuntza Politikarako Saiburuordetza



SORALUZeko  
UDALA



GIPUZKOAKO FORU  
ALDUNDIA

## bittartetik



Unai Larreategi

## Sagarrak Zeletan behera!

Aurten urte emankorra izan da Plaentxian fruta alde-tik eta nahi beste sagar, madari, intxaur... biltzeko aukera paregabia emon dosku amalurrak. Basarritarrak gustora nola ez, eta kaletarrak? Basarri mundu-kin harremanik ez dakazuenok enteratu al zarie aurten milaka kilo sagar emon dittuztela gure herriko sagarronduek? Olentzero oindio lozorruan egongo dan honetan sagarrak eurak be etorri jakuz kaleraino notizixa emotera, baina zenbatek entzun dozeu amalurraren deiza?

Ez naiz ni egokixena inori ezer esateko, ezagutzen nauzenok badakizue basarrixan ez dotela denbora larregi pasatzen. Baina basarri mundu-kin daukadan gutxieneko harreman horrek gauza batzuetaz konturatzeko aukeria emoten dosta zorionez.

Mundua ziharo aldrebestuta daukagunaren adibide bat gehixao da sagar kontu hau azken finian. Herriko sagarrak usteltzen diharduen bittartian nungo sagarrak jaten gabiz plaentxiarrok?

Bakoitzak etaraizue zuen ondori-xuak (nahi badozue), baina geure osasunagaittik ez badabe ea Gaztañerre Ferixia egun bateko festa izatetik urte guztiko festa izatera eruaten dogun poliki-poliki. Parranda on danori!! Trago bat zure omenez Aniaiz!!

## ((ENTZUTEKUAK))

## Edu Pombar, "Vuelve bigotillo vuelve" antzezlaneko aktorea

## Nundik datorkizu antzezteko zaletasuna?

Betidanik gustatu izan jata beste pertsona bat izatia, izaerekin jolastia eta beste pertsona baten azalian sartzia. Terapeutikua be bada eta ez da topiko hutsa esatia lotsatixak diran pertsonentzat antzerkixa oso lagungarria dala.

## Zer emoten dotsu antzerkixak?

Antzerkixak barru-barrutik betetzen nau. Taularaterakuan sortutako adrenaliniak arazo danak alde batera laga eta zoriontsu egitten zaittu.

## Eta beste generoren bat probatutakua zara?

Lagun artian egindako film labur batian parte hartu neban eta zinia oso astuna egin jatan. Sekuentzia berdina behin eta berriz errepikatzen egon bihar izatia ez da erreza. Antzerkixan momentuko interpretazi-nua lantzen da eta ikusliekin harreman zuzena mantentzen dozu. Beren erreakzinuek be bat-batekuak dira, izugarria!

## Lehenengo taularatziaz ze daukazu goguan?

Lelengo aldixa, arlo askotan moduan, ahaztezina da. Estreina-koz Abadiñoako Kultur Etxian jardun neban eta kirixuak dantzaz nittuan! Hain haundixa izan zan sentidu nebana, jende aurrian berriro be antzezteko gogua betiko geratu jatan.

## Zeinen aurrian, nun eta ze aktorekin antzeztuko zenduke?

"Vuelve bigotillo vuelve" Bilboko Campos Eliseos Antzokixan estreinatu genduan eta nere-



Bibotedun politikariarena egiten du Eduk.

tzat antzoki hau uff... pasadia da! Dana dala, eszenatokixari ez dotsat garrantzia haundirik emoten, edozein antzokik edo kultur etxek bere enkantua daukalako. Publikua da antzerkixan ardatza.

## Herrixan antzeztia berezixa izango da orduan?

Badakit oso urduri egongonaizela eta eguna heltzeko desiatzen nao! Publikuan inork ez ezagutzia abantaila da neretzat, presino gutxiagokin antzezten dozulako. Plaentxiarrentzat lana atsegina izatia espero dot.

## "Vuelve bigotillo vuelve"-ren aurrerapen txiki bat...

Guk politiko askon anbizinua eta eskrupulu faltia erakusten ahalegintzen gara lan honetan eta honegaittik, PP alderdiko ordezkari batzuk haserre dare gurekin. Estatu Espainiarreko politikian eta politikarixen kritikia ikusiko dabe ikusliak, zuzeneko musikia, dantzia eta umoria tartekatuta.

"PPko batzuk haserre daoz gure lanekin"

**TXOKO  
KAFETEGIA**



Kafe ederra hartzeko txokorik onena!

Kalebarren 22, behea, Soraluze. Tel. 943 75 17 89

**JUAN MARI**  
ARRAINDEGIA  
943 75 24 40  
MERKATU PLAZA  
25. URTEURRENA  
ESKERRIK ASKO PLAENTXIARREJ  
GUGAN IZEMDARO KONFIANTZAGATIKI

# Herriaren erdialdea Gabonak aurretik oinezkoentzat

**H**erriaren erdialdea autoz hustu eta oinezkoentzako izan dadin eskatzen duen proposamenak argia ikusiko du datozen hilabeteotan. Gabonak aurretik, egunaren ordu gehienetan kotxeak erdigunetik atera eta oinezkoei emango zaie lehentasuna. Zama lanak egiteko ordutegian soilik ibili ahal izango dira autoak bertatik, goizeko 07:00etatik eguerdiko 13:00ra bitartean. Zapatuko eguerdiko 13:00etatik astelehen goizeko 07:00ak arte ere autoek ezin izango dute erdigunetik ibili.

## Astelehenean egokitze lanak

Proposamena gauzatzeko hainbat egokitze lan egin behar direla azaldu du alkateak eta lehenbaila lehen egingo direla azpimarratu. Zentzu horretan, astelehenean, Gaztetxe parean (Zubi Nagusiaren erdialdean) pibota hidraulikoa jartzeko lanekin hasiko da Fresneda eraikuntza enpresa. Ezbeharrak aurreikusitako eta sortu daitezkeen estualdiak eta larrialdiak saihesteko, herriko dendariak eta tabernariak pibotak igotzeko eta jaisteko mando bana izango dute, baita Gabolats kaleko garajeen jabeek ere.

## Egueneko merkatua Plaza Zaharrera

Udalaren proposamen honek berritasunak ekarriko ditu zenbait arlotan. Besteak beste, egueneko merkatua Erregetxetik Plaza Zaharrera pasatuko da, Erregetxeko aparkaleku denak koitxeentzat erabilgarri egoteko.



Udalak hemen kokatuko du aipatutako pibota hidraulikoa.

## Erlezaintza, txalaparta eta taloak aurrekari

Bihar goizerako prest izango dituzte herriko nekazariak Gaztañerre egunaren harira egingo den azokarako produktuak. Erlezaintza, txalaparta eta talo ikastaroa izan dira aste honetan herritarren gozagarri. Astelehenean gazta eta ardo dastaketa ere egingo da Bizkalekoen eskutik.



## Kiroldegi gaineko lanak martxan

Foru Aldundiko Lurralde eta Antolamendu Sailak martxan jarri ditu berriz ere Kiroldegi gaina zabaltzeko lanak. 2008ko azaroan lanen arduraduna zen Lekber enpresak kiebra jo zuen eta lanak gelditu egon dira orain arte. Frixi enpresak amaituko ditu Lekberrek bertan behera utzitako lanak, urte bukaera baino lehen. Kulturaren Mahaiak Udalarari kultur lokalaren gainean egindako proposamenak, Gaztetxokoa squash gaineko lokalean eta ondoko terrazara bideratzeko aukera jasotzen du. Udalak bere aldetik ez du gune honen erabilera argitu.



## Lurdes Txurruka, 16 urtez preso

Datorren azaroaren 18an, eguna, 16 urte beteko dira Lurdes Txurruka gartzelaratu zutenetik, baita Angel Irazabalbeitia "Txorta"-k indar polizialekiko enfrontamenduetan bizia galdu zuenetik. Honen harira eta Lurdesen askatasuna eskatzeko kontzentrazioa antolatu du Soraluzeko Amnistiaren Aldeko Mugimenduak datorren eguenerako, Plaza Barrixan, 19:00etan.

## Teknologia berriak landa eremura

Debemen elkarteak eskualdeko landa eremuetan Internet eta telefono mugikorren estaldura hobetzea aztertuko du, gabeziak kokatu ahal izateko. Horregatik, baserrian edo auzoan kobertura arazoren bat duenak Debemenera jo dezan eskatu dute bertatik: 943 74 40 67 edo [gagirre@gmail.com](mailto:gagirre@gmail.com).

**GAZTELUPE**  
taberna  
tel: 943 75 20 81

**GILA TABERNA**  
GOIZEKO 6:30 ETATIK AURRERA ZABALIK  
GOSARIAK  
ETA PINTXO  
GOXO GOXUAK  
ERRABAL KALEA 15 T. 943 75 18 34



## Bost emakumek indarkeria salatu dute aurten

### Maisuen Etxeetako erabilera arautzen

Urriaren hasieran ekin zion Udalak Maisuen Etxeak eraberritzeko lanei eta urtarriaren amaierara arte luzatuko direla jakinarazi du Jose Luis Arizaga alkateak. Bien bitartean, Gobernu Batzordeak etxeei zein erabilera eman behar zaien erabakitzeke ekarpenak jasotzen dihardu. Ekarpeneen ostean, baldintzak eztabaidatu eta etxeak nola bideratuko diren arautuko du Gobernu Batzordeak. Behin arauak zehaztuta, Udalbatzarrean bozkatu beharko dira, indarrean jarri aurretik.

### Zeleta eta Iriarteko nagusiak bihar omenduko

Bihar goizean egingo den azokan, Zeleta baserriko Maria Ariznabarreta (81 urte) eta Iriarte baserriko Esteban Maiztegi (85 urte, irudian) omenduko ditu udalak. Ekitaldia Erregetxean izango da, eguerdiko 13:00ak inguruan.



### Adinduen zaintzaileentzat ikastaroa

Udaletxeko Gizarte Ongizate Zerbitzuak eta Solidaridad Intergeneracionalek adinduen zaintzaile diren familia kideei bideratutako edota orokorrean adinduen zaintzaren inguruko gaietan interesatuta dauden pertsonen zuzendutako ikastaroa antolatu du.

Edukiak zortzi saiotan landuko dira: Abenduaren 1, 2, 3, 9, 10, 14, 15 eta 16an.

**Ordutegia:** arratsaldeko 15:00etatik 18:30era.

**Izena emateko:** Azaroaren 16tik aurrera Gizarte Ongizate zerbitzuetan, 10:00etatik 13:00ra bitartean.

Telefonoa: 943 75 00 56

2010ean 20 eta 50 urte arteko bost emakumek salatu dituzte tratu txarrak herrian eta zortzik asistentzia psikologikoa jaso dute. Horietatik hiruk babesa jaso dute.

Azaroaren 25a Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Eguna izango da eta horren harira Emakumeen Batzordeak datuok zabaldu ditu. Bertan, arreta ipini nahi izan du "indarkeria sinboliko, leun, maltzur eta ia ikusezin horretan, zeinaren gainean eraikitzen baita emakumeen identitatea eta era berean, indarkeria fisikoa ahalbidetzen duen". Bestetik, Soraluzeke Udalaren erronka da "udal politika aktibo, integral eta koordinatua garatzea berdintasunaren alde eta emakumeenganako indarkeriaren aurka".

Hilaren 25erako kontzentrazio-rako deia egin du "Beldur Barrik" lemapean, Plaza Barrixan,

19:00etan. Abenduan eta urtarrilean tailerrak eta filmak izango dira gaiaren inguruan.

### Eraso edo tratu txarren aurrean:

SOS Deiak: ..... 112

Udaltzaingoa: ..... 943 75 30 24

Osasun Zentroa: ..... 943 75 22 59

Gizarte-zerbitzuak: ..... 943 75 00 56

### GENERO INDARKERIA DATUAK SORALUZEN 2010EAN 2010ean eskatutako eta eskainitako baliabide mota:

Baliabide mota	Emakume kopurua
Prestazio ekonomikoak	3
Asistentzia psikologikoa	8
Asistentzia juridikoa	2
Harrera pisua	0
Bizileku bilaketan laguntza	3
Interbentzio familiarra	0
Larrialdiko zerbitzua	1



Iazko azaroaren 25ean egin zen elkarretaratzea

**ARMENDIA**  
**JATETXEA**



Ezozi Auzoa 11  
20590 Soraluze  
T. 943 75 10 02

SUKALDARITZA  
TRADIZIONALA



**Soraluzeko  
Kooperatiba  
Elkartea**

**100 URTE**  
1910 - 2010

943 75 13 45

# EUSKARAREN UDAL ORDENANTZA BETEARAZTEN

**J**oan zen udaberrian Euskal Herrian Euskarazeko talde-txoan Udaleko Euskararen Udal Ordenantza aztertze-ko erabakia hartu genuen. Ez dakienarentzat ordenantza honetan udalaren euskararen erabilpena zehazten da. Azterketa egin genuenean gure hasierako zalantzak baieztatu ziren, udalak ordenantza horretako artikulua batzuk urratzen ziharduen. Urraketa gehien oinarria euskarari lehentasunik ez ematean dago edo euskararen erabilera okerrean (argazkian ikusten den bezala). Ordenantzan euskarari lehentasuna ematea onartuta egon arren eguneroko jardunean bi hizkuntzak pareko trataerarekin erabiltzen direlako eta bestela gaztelera hutsean.



**A**rrazoiak geneukala esan arren hurrengo hilabeteetan herrian jarraituko seinaleetika berriak udalak euskarari lehentasunik eman gabe jarraitzen zuen. Argazkiak bidali genituen udalera baina seinaleak aldatzen ez zirela ikusirik horietako bat hartu eta udalera eramatea erabaki genuen. Udalera eraman zenean idatzi bat bete genuen esanez, beraien aldetik aurrerapausorik emango ez balitz, beste kartelak ere kentzen hasiko ginela.

Hilabetera kartelak aldatzeke zeudela ikusirik lekutik kendu eta udaletxera eramatea erabaki genuen. Udaletxean aurpegi onik ez ziguten jarri karteekin azaltzean baina hilabeteetan egin ez zutena, ordubeteetan egin zuten.

**O**rain kalean dauden kartel "berri" horiek betetzen dituzte udal ordenantzak. Ikusiko dugu hemendik aurrera zer gertatuko den baina argi gelditu da borondate pixka batekin ordenantzak betetzea ez dela oso lan konplikatu.

Horrelako ekimenak egiteak badakigu buruhausteak sortzen dituela (trafikoan gorabeherak, udal langileentzat lan gehitua...). Baina ekimen horiek egitea beste alternatibarik ez dugu ikusi udalean aldatetarako eragiteko.

Ea hemendik aurrera orain hartutako bidean jarraitzen duen udalak. Badaude herrian euskarari lotutako bestelako hamaika eginbehar eta ea ez daukagun zaintza lanetan gehiago jardun beharrik.





## Zulotik begira



Kaixo:

Aurten ere Soraluze BHI ikastetxeak, Eskola Agenda 21 programan parte hartuko du. Dakizuenez, ingurumenaren aldeko ekimen honetan ikasleek, irakasleek eta irakasle-ez diren langileek parte hartzen dute. Labur esanda, eskola agenda 21 programak garapen jasagarria du helburutzat, eta honela laburtu dezakegu:

“Gaurko belaunaldien premiak aseko dituen, etorkizuneko belaunaldien beharrak arriskuan jarri gabe”.

Ikastetxean, honakoei heltzen diegu:

- Gaiari buruzko sentsibilizazio kanpaina.
- Ikastetxeko diagnostikoa.
- Hobekuntza eta kudeaketa egokirako plana adostu.
- Ikastetxeko estamentu guztiei egindakoa komunikatu.

Badaramatzagu zazpi urte proiektu hau gauzatzen eta aurtengo zortzigarrena izango da. Gogora ekar ditzagun aurreko urteetan landu izan ditugun gaiak.

- Ura.
- Zaborrak
- Energia.
- Kontsumo arduratsua



# Ezozi Etxeberria: “Nahixago dot basarriko eten bariko lana”

Baserriarekin bat eginda bizi da Ezozi, hainbeste eze bere abizena baserriaren izena bera dela pentsatu dugun. Etxeberriatarrek beti baserrian jardun izan dute eta kate luze horri jarraitu egin nahi izan dio Ezozik. Bakarra da herrian bere produktuak herririk herri azoketara ateratzen dituen. Ez da hortatik bakarrik bizi baina hori da bere beharra eta gustura egiten du gainera, barazkiak eta ogi egin berria plazetan saldu.

## Zeinek erakutsi dotsuz basarriko kontuak?

Etxian ikasi dot dana, gurasuekin. Gurasuak be basarritik bizi ziran. Hemen lana, lana eta lana egin da beti. Hori bai, jatekoa ez da falta izan. Oin anaia eta bixok ibiltzen gara.

## Soraluzen generua kalera etaratzen daben bakarrenetarikua zara. Ze produktu saltzen dozuz?

Alde batetik ortuak emoten dokun guztia. Negutegi bat be daukagu barazki eta lorekin, behitegixa eta oilategixa be bai. Ogixa egitten dot eta ferixaren bat badago maldalenak, kokuak eta antzerako gozuak be gertatzen dittut. Gana-dua Soraluzeko ferixara bakarrik etaratzen dogu. Lehen basarriko esnia be saltzen genduan etxietara, eta azokara be egunero juatenginan.

*“Ohitturak aldatu egin dira, oin plazak geldi-geidixak dare”*

Gero esnia saltzia zaildu egin zan. Modak aldatzen juan ziran, gaztiak be beste ohittura batzuk hartu zittuen eta ez zeken lapikua etaratzeko ohitturarik. Diputazinotik multak sartzen hasi ziran eta esnia kentzia erabaki genduan 1995ian.

## Kontrol haundixak pasatu bihar dozuz azoketan postua lortzeko?

Eibarren, Elgoibarren eta beste leku danetan osasun erregistrua eta esplotazio (ustiapen) txartela daukazun begiratzen dabe. Zumarragako ferixarako izena emon dot eta han, Gizarte Segurantzako txartela be eskatu doste.

## Herrixan be bai?

Hemen ez dabe horrenbeste kontrolatzen, lau katu gara eta bertakuak garanez, ez dabe horrenbeste kontrolatzen, bestela inork ezingo leukelako posturik ipini Gaztañerretan.

## Ze ezaugarri bete bihar dittu ogixak, esaterako?

Arauk Debemen moduko elkarte guztietan sartu dira. Neri ez zosten sekula ezebe esan aruten arte. Ferixa batian sanidadekoa postu guztietatik pasatu zan. Ogixak danak aurrian neukazen eta esan zostan danak boltsetan sartzeko eta indikatzeke zeinek egindakuak diran. Lelengo aldixa zanez barkatu egin zostan. Penia da, baina hola dago antolatuta.





### Horrek azoketan eragin dau?

Egixa da aldatzen dabizela. Ni lelenoz hemendik urten nintzanean jua nintzan Bergara, erramu zapatuko ferixara. Berez, nekazari, basarritar eta ganadu ferixia da, edo hola biharko leuke. Ba, jua nintzan ni berdura pilo batekin eta bakar-bakarrik neu! Egon nintzan dana kontserba artian, txarrikixak... Gaur da eguna berduriakin ni bakarrik juaten naizena. Basarritar askori ez jakue interesatzen, dietarik ez dabelako ordaintzen eta ez dagualako premixorik be.

*“Ogixakin, reposerixiakin eta artisauen postuekin betetzen dittue aspaldixan azokak”*

### Ze azokataru juaten zara?

Soraluze, Beasain, Eibar, Elgoibar, Arrasate, Zestoa, Deba, Donostia, Okondo, Zizurkil... Azoka pila baten emoten dot izena eta hilia behin edo birritan juaten naiz ferixaren batera.

### Nun saltzen dozu gehixen?

Elgoibarren, Eibarren eta Deban ondo saltzen da baina onduen Plazentzian, Gaztañerretan. Abadiñon azkenengoz egon nintzanean be ondo jua jatan.

*“Gaztañerretan saltzen dot gehixen”*

### Hala ta be, plazetara doian jende kopuruak behera egitten dihardu.

Plazak dare geldi-geldixak. Ze egin baina? Etortzen da merkadilua eta jendia hor doia. Gainera, beste ohitura batzuk daukez. Lanian egun guztian eta ailegaten da iluntzixa eta supermerkatu haundi guztiak hor dare, gabera arte zabalik. Hartu kotxia eta hor doiaz! Heltzen da zapatua eta egun pasa zentro komertzial haundixetara. Handik mobitzeke danetik dauke, bazkaltzeko, afaltzeko, ziniak, pasialekuak... Egualdi txarra badago primeran, umiak libre laga. Hori danian da holakotxia...

### Debemenekin ze tratu daukazue? Zela laguntzen dotse basarritareri?

Ganaduakin lan egin nahi badozu eurekin egon bihar zara. Danera be, laguntzak lortzia oso gaitza da. Papeleua eragitten dotsue eta ezertarako be ez dau balio izaten. Guk ezin izan genduan laguntzarik jaso ez geunkalako bihar beste lur.

### Eta hori?

Euren arabera guria esplotazino txikixa da. Zeoze lortzeko gitxienez 50 puntu bihar dittuzu eta guria kalifikatu zebe 20 puntutan. Ez dabe baloratzen nun bizi zaran. Hamen ezin dozu esplotazino haundixagua ipini, inguruak ez dau emoten hainbesterako eta, hau ez da Arabako lautadia. Diputatuakin berbertara be jua nintzan eta atzera papeleo guztiakin hasi nintzan berriro be, ezertarako

bez. Dirulaguntzak eurek nahi dabenandako dittue. Hiru aldiz errekurridu neban eta hiru aldiz ukatu. Amorru bat emon zoskun... ziharo desilusionauta geratu ginan.

### Zenbateraino emoten dotsu basarrixak?


Irabazteko baino, mantentzeko lain emoten dosku. Azoka batera eruandako dana saltzen badozu, baleike zeoze irabaztia. Uztia be egualdixan araberakua izaten da. Ondo datorren landarabat egualdixak egun baten hondatu leike. Basarrixan, etenik barik egon bihar dozu gainian, bedar txarrak kendu, landatu, jaso... Adibidez, oin ipini bihar dira babia, idarra eta berakatzak udabarrirako. Ba Gaztañerren ostian ipini eta ekainian hartzen dira. Egon bihar dira bost-sei hilabete, hortxe. Gerolau kiloko boltsatan saltzen dan babiak pentsatu zelako prozesu luzia daukan!

### Baina ze dozu nahixago, zortzi orduko lanaldixa ala basarriko etenik bareko lana?

Nik hau nahixago! Kalera jua nintzan bizitzera baina berriro bueltatu nintzan. Bizimodu hau gustatzen jata.







Kaixo Pil-pileaneko irakurleok:

Plaentxi LHko 6.mailako ikasleak gara eta kontatu nahi dizuegu urriaren 25etik 29ra Orioko Txurruka aterpetxean egon ginela, ingelesa ikasten.

Barnetegia, Orioko hondartza txikiaren ondoan kokatua dago, ibaiaren ezker aldean. Bertatik paisaia polita ikusten da. Barnetegia oso handia zen: aurrealdean kirol eremua zuen, frontoi txiki bat, igerilekua... Logelak handiak ziren, 12 pertsonentzako prestatuak. Ikasgelak txikiak ziren baina material asko zuten. Jantokia aldez, oso handia zen.

Heldu ginenean beste hiru eskoletako ikasleekin elkartu ginen: Baldegobia, Zaldibia eta Gabiriakoekin.

Guztiok talde desberdinetan banatu gintuzten eta ekintza desberdinak egin genituen. Talde bakoitzak ingelesez mintzatzen den herrialde baten izena hartu zuen.

Egun bakoitzean pertsonai ezberdinak izan ginen:

1. eguna: zientzilariak
2. eguna: artistak
3. eguna: sukaldariak
4. eguna: olinpiadak

Egunero jaiki orduko gosaldia eta Getan klasera joaten ginen proiektu desberdinak prestatzera. Hamarretakoaren ondoren, lanean jarraitzen genuen eta bazkal ostean arratsaldeko saioan, egindako lanaren aurkezpena egiten genuen. Afal ondoren, beti genituen "katxondeorako" ekintzak: karaokea, diskoteka...

Ingelesa ikasi genuen, begiraleak ingelesak zirelako eta derrigorrez beraiekin ingelesez hitz egin behar genuelako. Janaria oso goxoa zegoen eta monitoreak oso jatorrak ziren.

Beste eskoletakoekin oso lagunak egin ginen.

Oso ondo pasatu dugu nahiz eta gutxi batzuei ez zaien gustatu ingelesez hitz egiteaz aspertu zirelako!







## Ipuinak irakurtzeko ohiturarik badaukazu?

### Zelako ipuinak irakurtzen dozuz?

**Btisan Ouardi, 7 urte**



Neri liburuak irakurtzia musikia entzuta baino gehiago gustatzen jata eta beldurrezko ipuinak dira nere gogokuenak. Hanna Montanan ipuinak modan dare eta nik be irakurtzen ditud.

**Elena Sierra, 7 urte**



Guk eskolan euskaraz idatzitako ipuinak irakurtzen ditudugu. Nik etxian printzesei buruzko ipuinak irakurtzen ditud. Irakurri doten azken ipuina "Pequeña princesa" izan da. Dana dala nahixago dot musikia entzuta.

Nik Pinotxon abenturak irakurtzen ditud gehixen, eta baita Pepito kilkerran abenturak be. Gurasuak bi ipuin honen filmak oparitu zostezen eta nahixago dot filmak telebistan ikustia, entretenigarrixagua dalako.

**Jonatan Armendia, 7 urte**



Neri asko gustatzen jata ipuinak irakurtzia. Eskolan liburutegira juaten gara eta nahi doguzen ipuinak hartzeko aukeria daukagu. "Marijoseri zergatik deitzen diote Josemari" da irakurri doten azkena. Dinosauruen eta munstruen ipuinak dira baina nere gustokuenak.

**Julen Gonzalez, 7 urte**



## DENBORAPASA



1	.....
2	.....
3	.....
4	.....
5	.....
6	.....
7	.....
8	.....
9	.....
10	.....

Iturria: Luma aldizkaria

Bila itzazu "S" hizkiak hasten diren 10 elementu, gutxienez.

# ZER TRIZTEN DOTSAZU?

Maisuen Etxeak etxebizitza sozialetara bideratzeko lanak hilabete inguru hasi ziren. Udalaren arabera, otsailerako bukatuta egongo dira eta dena ondo, martxoan inguruan hasiko da jendea bertan bizitzen. Nork eduki beharko luke bertan bizitzeko aukera? Ze ezaugarriren arabera?

## Zeini bideratuko zontsakez etxebizitza sozialak?

### ALAZNE ARIZAGA

Jantokiko begiralia



**N**ik uste biharra daukanak jaso biharko leukela holako etxe bat. Zeinek daukan bihar haundixagua ez dakit, ezta zela banatu be. Egokixena herriko jendiari eta gaztieri emotia litzake, ze herrixan bihar haundidun jende asko dago.

### KEPA ELORTZA

Elkarrizketatzailia



**N**ere ustez lehtasunak erabakitze modurik onena herriko jendian artian berba egittia da. Izan be, herrixak bihar dabena herrixak berak daki. Baina hori ideala da, eta jende guztia ez dago horretarako gertu.

### MERXE PEREZ

Ofizinstia



**L**elengo herriko jendiari bideratuko notsake eta benetako biharrak zeinek dittuan ikusi biharko litzake. Batzuk lana eta diru laguntzak jasotzen dittue eta beste batzuek ezebez. Laguntza gutxien daukenak izan biharko lirake.

### PEDRO ELIZBURU

Jubilatua



**L**elengo herritarrak dira lehtasuna izan bihar dabena, langabezi-xan darenak eta nun bizi ez daukenak. Uste dot udaletxian eta herritarraren artian erabaki biharko litzakela zeini bideratu.

Javier Alonso Zelaeta  
 MEDIKU ESTOMATOLOGOIA  
 K.Z. 20.000.434  
 Jon Azkorbebeitia Txurruka  
 K.Z. 20.000.752

**HORTZ KLINIKA**

Errabal 1 - Barrenekoa 2 T. 943 75 16 13

**ARRANO**  
 tabernia

etorri eta gozatu  
 giro euskalduna eta sanua

**etxera**

**MENDIZABAL**  
 okindegia

Kalebarren 10  
 T. 943 75 20 91  
 Baltegieta 6  
 T. 943 75 13 99

**SORALUZE**

**TXURRUKA**  
 JATETXEA

www.txurruka.com  
 943 75 15 81



### Errebal jaialdia hip-hop doinuak lantzen

Errebal jaialdi ibiltaria bere azkenetan da. Gaztelupeko Hotsak zigiluak Kase. O jazz magnetism hip-hop taldearen kontzertua antolatu du Espaloia Kafe Antzokian eta honekin itxi-ko dute aurtengo egitaraua. Hip-hop talde honek Euskal Herrian eskainiko duen kontzertu bakarra da. Abeslari ezaguna du talde honek, Violadores del Verso Espainiako hip-hop talde esanguratsueneko kidea hain zuzen ere. Berak eta puntako beste lau musikariek osatzen dute aipatutako taldea. Kontzertua azaroaren 20an izango da gaueko 22:30ean Elgetan.



## Kontrargik XXII. Argazki Rallya antolatu du

Kontrargi Argazki Kolektiboko kideek XXII. Argazki Rallya antolatu dute azaroaren 21erako. Izen ematea egunean bertan egin beharko da argazki elkartearen lokalean, Errabal 5-1 zenbakian, goizeko 8:30etatik 9:30era bitartean. Epaimahaiak Rallyra aurkezten diren argazkilariek jorratu beharko dituzten gaiak egunean bertan banatuko ditu eta parte hartzaileen argazki txartelak hutsik egon beharko dira Rallya hasi aurretik. Bukatzerakoan gehienez parte hartzaile bakoitzeko 40 argazki onartuko dira. Izen ematea helduentzat 10 eurokoa da eta gazteentzat 5 eurokoa.

### Irabazlea abenduan aukeratuko da

Epaimahaiaren erabakia abenduaren 10ean jakinaraziko da, San Andres auzoko elkartearen arratsaldeko 20:00etan egingo den batzarraren. Bertara gonbidatuko dituz-

te parte hartzaile denak. Sari banaketa berriz abenduaren 18an egingo du Kontrargik, 13:00etan kiroldegiko erakusketa aretoan.

### Sariak:

1. multzorik onena: 100 euro
  2. multzorik onena: 80 euro
  3. multzorik onena: 60 euro
- Herriko onena: 60 euro  
Gazte saria: oparia



Fernando Oregik irabazi zuen iazko Argazki Rallya

### Azaroko Kultur Agenda

#### AZAROAREN 12tik 21era

##### ERAKUSKETA

#### Ralph Hortonen margolanak

Oreka Art aretoan

Ant: Oreka Art Aretoa

#### AZAROAK 15, astelehena

##### Ardo eta gazta dastaketa

20:15ean, Plaza Zaharreko karpan.

Ondoren Gaztañerretako afaria

Ibai Eder Elkartearen.

Ant: Bizikale eta

Soraluzeko euskalgintza

#### AZAROAK 19, barixakua

##### ANTZERKIA

"Vuelve bigotillo vuelve" 22:15ean, Zinean.

Ant: Udaleko Kultura Batzordea

#### AZAROAK 20, zapatua

##### KONTZERTUA

Madrileko Agrupación

*Coral El Madroño abesbatza.*

20:00etan, Zinean.

Ant: Ezoziko Ama Abesbatza

#### AZAROAK 22, astelehena

##### SANTA ZEZILIA eguneko kalejira.

18:30etik aurrera

Ant: Soraluzeko Musika Eskola

#### AZAROAK 26, barixakua

##### ANTZERKIA

*Euskarazetamol.* Bikoteatroa.

22:15ean, Zinean.

Ant: Udaleko Kultura Batzordea



**PASCUAL CHURRUGA, S.A.**

Hotzian eta beruan  
jotako tornilluak

**Errekalde 21  
20590 SORALUZE**

T. 943 75 00 06

T. 943 75 16 00

F. 943 75 24 61



*Disceinua eta Sormena*

Poligono Amillaga, nº 5

Tlf.: 943 76 99 85

20570 BERGARA (Gipuzkoa)

Fax.: 943 76 05 17

Altzairuen fabrikazioa:

- Bainugelak
- Sukaldeak
- Horma-armairuak
- Barruko altzairuak

# Azaroaren 20an jokatu da Karakatera igoera

Elgoibarko Morkaiko Mendizale Elkarteak azaroaren 20rako, zapatua, antolatu du urtero egitendean Karakatera Igoera froga. Goizeko 11:00etan irtengo dira korrikalariak mendian gora. Parte hartzaileek ordu horretan Elgoibarko Plaza Handian agertu besterik ez dute egin beharko. Izena ematea doakoa da eta urtero moduan, ibilbidea ez da markaturik egongo, beraz, partaide bakoitzak nahi duen ibilbidea

hartu ahal izango du tontorrera irteteko. Antolatzaileek ez dute azken txanpan iturritik ezkerreara doan bidezidorra garbituko.

## Aurpegirik onena saritua

Sekula baino parte hartzaile gehiago izan zituen iazko igoerak; guztira 58 lagun, tartean sei soraluzetar. Arrakastari eusteko, azken metroak aurpegirik onenarekin egiten dituen partaideak saria jasoko du, iazko moduan.

# Mendi taldeak amaitu du aurtengo denboraldia

Mendi Taldeak bazkide eguna ospatu zuen urriaren 30ean, 2010. urteko denboraldiari bukaera emateko. Igotako mendien arabera saritu zituzten umeak eta ia 60 mendizalek jantzi zuen domina. Aurretik baina, mendi itzuli txiki bat egin zuten San Andres auzoraino. Han babajana egin eta gero hasi ziren opariak banatzen.



Iturria: Niko Mendia

## EMAITZAK

### PELOTA

Mtz de Irujo – Laskurain 18  
Titin III – Zubieta 22

Zubiri – Atxotegi 6  
Andreu – Untoria 22

Atxotegi 22  
Jauregi 5

### FUTBOLA

Sora (Erreg.) – Urki 3-3

Sora (Erreg. B) – Eibartarrak B 4-0

Idiazabal – Sora (Jub.) 4-1

Sora (Kad.) – Eibartarrak 3-6

Sora (Erreg.) – Sora (Erreg. B) 3-0

Lazkao – Sora (Jub.) 3-1

Sora (Kad.) – Eibar B 3-9

## AGENDA

### PELOTA

**Gaur, azaroak 12, 22:15ean Soraluzeko frontoian**

Idoate  
Merino II

Saralegi – Zubieta  
Aritz Lasa – Laskurain

### FUTBOLA

**Zapateria 13, 15:30ean Unben Eibartarrak – Sora (Erreg.)**

**Zapateria 13, 12:00etan Ezozin Sora (Erreg. B) – Urki**

**Zapateria 13, 10:00etan Ezozin Sora (Jub.) – Urola**

**Kadeteek deskantsua**

## 500 korrikalari Antxintxikan

Joan zen zapatuan jokatu zen Bergara eta Soraluze batzen dituen Antxintxika Krossik jendetsuena. Herriko hamabost korrikalarik parte hartu zuten, tartean Nahaira Zendoiak. Soraluzeko korrikalari azkarrena Zigor Esnaola izan zen, 26. postuan sailkatua.



Iturria: Mikel Valero

Informazio gehiago:



**Hnos. BENITO ANAIAK**



Etxeko eta Sukaldeko Altzariak  
Eskatu presupuestoa konpromisorik gabe

T. eta F. 943 75 20 47  
Santa Ana 26, 20590 SORALUZE-PLACENCIA (Gipuzkoa)



**SAN ANDRES ITURGINTZA**

Iturgintza, gasa, eta berogailuak sukaldeak eta bainuak

Errebal kalea 2 behea

T. 943 75 16 46





## ZORION AGURRAK



### Naroa Gil

Azaruan 8xan, 7 urte!  
Zorionak eta muxu haundi  
bat etxekuen partez!



### Beñat Calleja

Azaruan 19xan 4 urte!  
Zorionak etxekuen partez  
eta muxu haundi bat!!



### Paki Ramirez

Azaruan 21ian, 59 urte!  
Zorionak etxeko danon  
partez.



### Irea Rascon Criado

Azaroan 6an, 6 urte!!  
Zorionak politta.  
Gorka, amatxo eta  
aitatxoren partez.



### Leiretxoooo

Zorionak txikilinnn eta muxu  
asko asko zuk dakizun denon  
partez!!



### Manex Osinaga

Azaroaren 21ian 7 urte!!  
Zorionak Mirenen eta  
gurasuen partez!!  
Beti bezain jator jarraitu!!



### Iraitz eta Garazi Vadillo

Urriari 11n 7 urte eta  
urriari 23an 11 urte! Zorionak bikote eta  
muxu handi asko familixakuen partez!



### Iker eta Miguel Angel

Azaruan 6xan eta azaruan 3an  
urriak bete di uzuelako...  
zorionak eta muxu haundi bat  
amama Marin partez!



### Ane eta Marina Gabilondo

Urriari 29xan eta azaruan 9xan  
12 eta 9 urte bete dituzue!  
Zorionak eta patxo haundi  
bana etxekuen partez!



### Ariane Criado

Urriari 22xan, 9 urte.  
Zorionak bitxo!  
Tia Rakelen partez.

## hildakoak

FRANCISCO JAVIER ESNAOLA INTXAUSTI



## LEHIAKETA

## AURREKO ALEKO ERANTZUNA

- ▶ Zein ageri  
da argazki  
honetan?

- ▶ Saria:  
Danbaka musika  
lehiaketako mate-  
rialia eta bi sarrera



- ▶ **Irabazlea: Josu Benito**
- ▶ **Aritz Laskurain**, pelotarixa da,  
pasa dan aleko argazkixan agertzen  
zan soraluzetarra.



Oharra: Lehiaketako irabazlia aukeratzeko zozketia alia etara eta hurrengo barixaku eguerdixan egitten da

deitu **943 75 13 04** edo e-mail bat bidali ezazu **aldizkaria@pilpilean.com**

# ARGAZKI ZAHARRA



Iturria: Ezozi Etxeberria

## TXARRI ZAINTZIA ARIZAGA BASARRIXAN

**1** 956ko argazki honetan Arizaga basarriko Isabel Etxeberria eta Angelita Ereña etxeke ataxan lanian ageri dira, tartian sasoi hartan zeuken txarrixa zaintzen. Gaur egun ez dabe txarririk hazten San Andres auzuan dagan basarri honetan, baina antzina ohikua zan txarrixa urte osuan zaindu ostian, azaruan 11n, San Martin egunian, txarri bodia ospatzia. Txarri bodetan urte osuan gogotsu hazittako txarrixa familixakuen artian hil eta urte osorako jana etaratzen zebe bertatik. Ospakizun honetara inguruko basarriretako famili eta lagunak gonbidatzen zittuen arizagatarrek eta jana eta edana ez zan inoiz faltan izaten.

**Argazkian ezkerrian:** Isabel Etxeberria †

**Argazkian eskuman:** Angelita Ereña



### CARLOS GAUBA LETE

I. URTEURRENA  
2009KO AZAROAREN 24AN HIL ZEN

Sendiak eskerrak eman nahi dizkie euren dolumina adierazi dieten herritar guztiei. Horrekin batera, azaroaren 17an arratsaldeko 19:00etan egingo den urteurreneko elizkizunera etortzeko deia egiten dute.

Sendia.



# IV. Danbaka Musika Lehiaketa



## EL TRIO CALAVERA (Oñati)

Igaro apirilean elkartu ziren Luis (Poetas Muertos taldekoa), Ekaitz (Nos la suda taldekoa) eta Beñat (Ez! Taldekoa) gitarra hirukote bat sortzeko. Rumba euskalduna dela esaten diete baina letrak Luisenak direnez eta honek euskaraz ez dakieenez, 'rumba merkea' izendatu zuten. Errealitateko egoerei eta maitasunari buruzko abestiak egiten dituzte, beti ere gitarra oinarriak eta gitarra bakarlariak errespetatuz.

## ROCK PRIVADO (Oñati-Donostia)

German (gitarra eta ahotsa), Adriana (ahotsa), Juan Ignacio (gitarra), Iñigo (teklatura), Victor (baxua) eta Andoni (bateria) dira taldeko kideak. Pop-Rock musika egiten dute. Bi disko dituzte kalean: 2008 hasieran kaleratu zuten lehena, 'En todo este tiempo'; lehen diskoarekin, Madrilgo Audiciones 2008 lehiaketan final aurrekora heldu ziren. Bestetik, Bartzelonako Vilabigband 2008-n eta Danbakako hirugarren edizioan ere izan dira. 2010eko irailean bigarren diskoa kaleratu dute, 'Caras'. Taldeko abestiak Germanek konposatutakoak dira eta benetako istorioetan oinarrituta daude. Helburua, bere esanetan, ez da errima sinpleak edo melodia gogoraerazak eskaintzea, mezu argi eta sakon baten bitartez, entzuleen buru eta bihotzetara heltzea baizik.

## FRONT MALABAR (Arrasate)

Rock Power hirukotea, 2009an eratu zen. Borja (gitarra eta ahotsa), Josema (bateria eta koruak), eta Aitor (baxua eta koruak). Urte baten buruan hamar konposizio egiten dituzte eta bertsio pare bat ere. Egindako kanta guztiak ingelesezkoak dira. Soinu berezia eta gogor samarra izan arren, ez dute melodia ahazten. Deustuko Mr. Jam estudioetan lau abesti grabatu zituzten eta Santurtziko Munich 72 salan euren lehen kontzertua eman zuten.

## FRONT MALABAR (Arrasate)

Abadiñoko metal taldea, 2006an sortua. Taldeak aldaketa batzuk izan dituen arren, egungo partaideak hauek dira: David (ahotsa), Roberto (gitarra), Javier (bateria), Asier (baxua) eta Ivan (gitarra). Euren bigarren kontzertuan, jada, 2006ko Aldapa maketa lehiaketa irabazi zuten (Berrizen, Bizkaian). 2008an 'Apathy' izeneko lehen Ep-a kaleratu zuten, Lorentzo Recordsen grabatua. 2009an 'Euskal Zarata Tour '09' delakoan parte hartu dute eta Euskal Strong Festibalean ere izan dira Walls of Jericho, Hamlet edo Death before dishonor taldeekin eszenatokia konpartitzen.





## “Kalitate-ziurtagiria bermea da jatetxea ezagutzen ez dutenentzat”

Salegi Jatetxea ‘Q’ turismo-kalitatearen ziurtagiria daukan Euskadiko 278 ostatu eta jatetxeetako bat da. Kalitatea eta zerbitzua ematea da bere helburua, eta mota askotako otorduak eskaintzen ditu Itziarko inguru zoragarrian. ‘Q’ kalitate-sistemaren alde egiteko arrazoiak galdetuta, osasun prebentziorako sistema ezarri beharra aipatu du Salegi jatetxeko nagusiak, baina nabarmenduz, era berean, antolaketan eta kudeaketan abantailak begi bistakoak izan direla.

### Zergatik egin duzue turismo arloarekin lotutako kalitate-sistema baten alde?

Osasun arloko ikuskariak ohartarazita hasi ginen kalitatearen bidea urratzen. Arriskuen Azterketa eta Kontrol Puntu Kritikoen (AAKPK) sistema eduki behar genuela esan zigun, eta ‘Q’ turismo-kalitatearen ziurtagiriak sistema hori bere baitan zuela bage-nekienez, bada horretarako urratsak ematea erabaki genuen.

### Zein onura edo abantaila ekarri dizue ‘Q’ turismo-kalitatearen ziurtagiriak?

Jada ezagutzen gaituztenentzat, ‘Q’ ziurtagiria edukitzea berez balore positiboa da, beste puntu bat gehiago nolabait esanda. Ezezagunentzako berriz, hau da, gure jatetxea ezagutzen ez dutenentzako, berme bat da, ‘Q’ horrek adierazten duelako toki horretan antolaketa ona dagoela.

### Behin ziurtagiria ezarrita, zein izan dira barne hobekuntzak? Eta antolaketan? Kudeaketan? Azpiegiturretan?

Egia esan ez dugu aldaketa aipagarriarik egin, lehen ere berdin samar antolatzen ginelako. Baina egia da orain gauza gehiago kontuan hartzen ditugula, gauza gehiago kontrolatzen ditugula, eta horrek sendotu egiten du antolaketa on bat. Eta antolaketa ona dagoen tokietan, zerbitzua ere hobea da.

### Hobekuntza hauetatik zeinekin gelditzen da gusturago bezeroa?



Esan dudan bezala jatetxean ez dugu aldaketa aipagarriarik egin, lehen bezala funtzionatzen dugu orain ere, eta ez nuke jakingo esaten zerk eragiten duen gogobetetasuna.

### Laburtu esaldi bakar batean kalitate ziurtagiriaren onurarik handiena.

Antolaketa eta kontrola ziurtatzeko sistema bat da.

### Gomendatuko zenieke beste enpresariei kalitate ziurtagiriarekin lan egitea? Zergatik?

Bai, dudarik gabe. Ziurtagiria edukitzea, berez, balore positiboa da bezeroentzat, eta atal guztiak kontrolatuta edukitzea laguntzen du.

### Uste duzu turismoaren ‘Q’ ziurtagiriak laguntzen diola enpresari lehiakortasunari begira?

Bai, positibo den guztia zerbitzurako eta antolaketarako ona delako, eta, beraz, lehiakorrago egiten duelako enpresa.

### Zein dira, zure ustez, turismo-kalitatearen ‘Q’ ziurtagiriaren kudeaketaren barruan landutako gaitasun baliagarriena edo garrantzitsuena?

Esango nuke baliagarriena eguneroko erosketen eta biltegiaren kontrola dela, hobeto antolatuta daudelako, eta horrek abantailak dakartzalako, baina oro har, garrantzitsuena da arlo guztiak kudeatzen laguntzen duela.

Eusko Jaurlaritzak, Basquetour Turismoarako Euskal Agentziarekin batera, enpresarien esku jarri ditu lehiakortasunean aurrera egiteko tresnak eta laguntzak. Adibidez:

**Jardunbide Egokien Egitasmoa.** Helburua da enpresarien profesionalizazioa hobetzea, eta helmuga turistikoa garela kontzientziatzea. Euskadin 323 establezimenduk dute Turismo Kalitatearekiko Konpromisoa Agiria.

**Turismo Kalitatearen ‘Q’ egitasmoa.** Egitasmo honen bidez bezeroen gogobetetasuna eta haien aurreikuspenak beteko direla ziurtatzen da. Euskadin 278 ostaturik edo jatetxek dute ‘Q’ ziurtagiria.

**Bikaintasunaren EFQM Ereduaren egitasmoa.** Egitasmo honen bidez kalitatean bikaintasuna lortzeko bideak jartzen dira. Euskadin 16 establezimendu parte hartzen ari dira.